

1083/2020 EBAZPENA, ekainaren 29koa, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuko Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuko (ESI) zuzendari gerentearena. Honen bidez, argitara ematen da onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda, Bilbao-Basurtoko Erakunde Sanitario Integratuan zerbitzuburu sanitario lanpostu bat betetzeko.

EGITATEAK:

1. 2020ko ekainaren 5ean, BOEn argitaratu zen Bilbao-Basurtoko ESIan Oftalmologiako zerbitzuburu sanitario lanpostu bat lehiaketaz betetzeko deialdia; eta, egun berean, Osakidetzaren eta gainerako zerbitzu-erakundeen web orrietan ere argitaratu zen Bilbao-Basurtoko ESIko zuzendari gerentearen 116/2020 Ebazpena, deialdia onartzen zuena. 2020ko martxoaren 23an, deialdi hau EHAAn argitaratu zen.
2. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, eta parte hartzaileek bete beharreko baldintzak aztertu ondoren, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen da; halaber, 10 egun balioduneko epea irekitzen da erreklamazioak aurkezteko.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

1. Ekainaren 26ko Euskadiko Antolamendu Sanitarioko 8/97 Legearen 28. artikulua 3. arau komuna; uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua, lanpostu funtzionalak arautzen dituen; azaroaren 11ko 255/97 Dekretua, Osakidetza – Euskal Osasun Zerbitzua Ente Publikoaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen; uztailaren 3ko 100/2018 Dekretua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko erakunde sanitario integratuena, bereziki zerbitzu-erakunde integratuetako zuzendari gerenteen eskumenei buruz ezarritakoari dagokionean; Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1/2016 Jarraibideak, zerbitzuburu eta atalburu fakultatiboan lanpostuak betetzearen gainekoak; eta aplikatu beharreko arauak.

Aurreko guztia aintzat harturik,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Onartu eta baztertutako eskatzaileen behin-behineko zerrenda onartzea, Bilbao-Basurtoko ESIan Oftalmologiako zerbitzuburu sanitario lanpostu bat lehiaketaz betetzeko deialdiaren barruan (Ebazpen honen I. eranskina).

Bigarrena. - Ebazpen hau argitaratzea Osakidetzaren web-orrian eta zerbitzu erakunde honen intranetean, baita azken honen iragarki-taulan ere.

Ebazpen honen aurka, erreklamazioa aurkez daiteke, edota, hala badagokio, eskabideetako akats zuzengarriak zuzentzea eskatu. Horretarako, **10 egun balioduneko** epea dago, ebazpen hau Bilbao-Basurtoko ESlaren web orrian eta iragarki-taulan argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Erreklamazioak idatziz zuzendu beharko zaizkio Pertsonaleko zuzendariari.

Bilbon, 2020ko ekainaren 29an

BILBAO-BASURTOKO ESIKO ZUZENDARI GERENTEA
ESKUORDETZAZ, BILBAO-BASURTOKO ESIKO PERTSONALEKO ZUZENDARIA
(1556/2017 Ebazpena, ekainaren 20koa)



Iz.: AMAYA DE ALLENDE ACHALANDABASO

I. ERANSKINA

BILBAO – BASURTOKO ESI

Oftalmologiako zerbitzuburu sanitario/
ONARTU ETA BAZTERTUTAKO PERTSONEN BEHIN-BEHINEKO ZERRENDA

Onartuak

- Gonzaga Garay Aramburu jauna.
- Maria Paz Mendivil Soto andrea.

Baztertuak

- Inor ez

